

Donostian, 2021eko azaroaren 30ean

## ALDATZEKO ARAU PROPOSAMENAREN EKIMENA

Aitzole Araneta Zinkunegi Elkarrekin Donostia udal taldeko bozeramaileak, Osoko Bilkuraren Erregelamendu Organikoaren 90. eta 91. artikuluen babesean, Hiriko Ohore eta Goraipenei buruzko Araudia ALDATZEKO PROPOSAMENAREN EKIMEN hau aurkeztu du.

## JUSTIFIKAZIOA

Donostiak urrezko domina eman zion Federico Silva Muñoz ministro frankistari 1972. urtean, eta ohore horrek indarrean jarraitzen du gaur egun; nahiz eta Memoria Historikoari buruzko 52/2007 Legearen 15. artikulua administrazioak behartzen dituen altxamendu militarren, Gerra Zibilaren eta Diktaduraren errepresioaren inguruko sinboloak, monumentuak eta, modu pertsonalean edo kolektiboan, garai hura goraipatzen dute beste objektu edo aipamen guztiak kentzera.

Horregatik guztiagatik, honako hau proposatzen du Elkarrekin Donostiak:

## ERABAKIA

- Bidezkotzat jotzea Hiriko Ohore eta Goraipenei buruzko Araudia aldatzea, Memoria Historikoari buruzko 52/2007 Legearen 15. artikulua araberak honako hau berariaz jasota gera dadin: «altxamendu militarren, Gerra Zibilaren eta Diktaduraren errepresioaren inguruko armarrak, intsigniak, plakak eta, modu pertsonalean edo kolektiboan, garai hura goraipatzen duten beste objektu edo aipamen guztiak kentzea».

Sin.: Aitzole Araneta

*Elkarrekin Donostia udal taldeko bozeramailea*